

295/2022 EBAZPENA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUNA- GOI-MAILAKO TEKNIKARI JURIDIKOANPOSTU BAT BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN/ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENEZ/ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA HUTSIK UTZI DELA ADIERAZTEN DA.

Giza Baliabideen Zuzendaritza honek, urtarrilaren 31ko, 65/2022 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Arlo Korporatiboko teknikari arduraduna–Goi-Mailako Teknikari Juridikoa lanpostu bat behin betiko barne-mugikortasunaren/aldi baterako barne sustapenez/zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdia ikusirik.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, ez denez inolako eskaerarik jaso, bidezkoa da deialdia hutsik uztea.

Azaldutako guztiagatik, indarreko legeriak emandako ahalmenak langileei buruz ezarritako baldintzekin bat etorri, Zuzendaritza honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko arlo Korporatiboko teknikari arduraduna –Goi-Mailako Teknikari Juridikoa- lanpostu bat behin betiko barne-mugikortasunaren/ aldi baterako barne sustapenez/zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdia hutsik geratu dela adieraztea. Deialdia Giza Baliabideen Zuzendaritza honen urtarrilaren 31eko, 65/2022 Ebazpenaren bidez egin zen.

Bigarrena.- Osakidetzako Intranetean Ebazpen hau argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 21ean



Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
Iz.: **Luisa Larrauri Ereñozaga**
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA